

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**MUGIKORTASUNEO ETA LURRALDE
ANTOLAKETAKO DEPARTAMENTUA**

Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusia

Asteasuko «Sagastume» A-0.1 egikaritze-unitatearen hiri-antolamenduko plan berezia. (GHI-018/21-P08).

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentu-ko titularrak, 2021eko maiatzaren 27an, Foru Agindu bat eman zuen eta agindu horren edukia argitaratu ematen da hemen:

«Udaleko administrazio-izapideak egin ondoren, Asteasuko Udalak espediente hau bidali du Foru Aldundira, behin betiko onesteko: Asteasuko udalerriko A.01 «Sagastume» egikaritze-unitatearen hiri antolamenduko plan bereziaren espedientea.

Eremuaren jabeak sustatutako espediente horren xedea A-0.1 «Sagastume» egikaritze-unitate berria garatzea da. Unitate hori Sagastume baserriak gaur egun hartzen duen lurzati osoa da, eta 761,98 m²-ko azalera du gutzira.

Jarduketa da baserriaren eraikin nagusia eta horri erantsita-ko eraikinak kentzea eta horien ordez dentsitate txikiko eraikin isolatu bat egitea, oinplano angeluzuzeneko eta profil hau duena: erdisotoa, beheko solairua eta lehenengo solairua. Erdi-sotoko solairua garajerako eta trastelekurako erabiliko da; zortzi aparkaleku egingo dira. Beheko eta lehenengo solairuak, berriz, etxebizitza gisa erabiliko dira, eta gehienez ere lau unitate izango ditu. Era berean, GI-2631 foru errepidearekiko eta Eliz kalea-rekiko tartekak ezartzen dira, eta horrek gutxienez 2,80 metroko zabalera duen espaloia lortzea ahalbidetzen du.

Asteasuko Udala espedientea izapidetzen hasi zen, ingurumen-organoari planaren ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua egiteko eskaera egin. Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak, 2020ko ekainaren 23an, ingurumen-txosten estrategikoa egin zuen, eta bertan adierazi zuen ez zegoela ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egin beharrik, ingurumenerako ondorio negatibo nabarmenik ez zekarrelako, baina betiere baldintza hau betetzeko: plan berezian eta ingurumen-dokumentuan ingurumena babesteko eta zuzentzeko neurriak sartzeari, hain zuzen ere, ingurumen-txosten estrategikoan adierazita zeudenak.

Asteasuko Udalean ingurumen-organoaren erantzuna jaso ondoren, Alkatezaren 2020ko irailaren 28ko Dekretuaren bidez hasierako onespina eman zitzaion, betiere 2020ko iraileko dokumentuan jasotako baldintzekin; eta jendaurreko informazio-aldian ez zen alegaziorik aurkeztu.

2006ko ekainaren 6ko 1/2006 Foru Dekretu Arauemaileak –Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauaren testu bategina onesten duenak– ezartzen duen nahitazeko txostena eskatu zen, eta Plangintza eta Ustiaketa Zuzendaritza Nagusiak, 2020ko urriaren 2an, aldeko txostena egin zuen, baldintza honekin: GI-2631 errepideko galtzadaren ondorako aurreikusitako luzetarako aparkalekuak kentzea.

Ingurumenaren, errepideen eta zortasun aeronautikoen arloan egindako txostenen edukia aintzat hartuta, 2020ko aben-

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA**DEPARTAMENTO DE MOVILIDAD
Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO**

Dirección General de Ordenación del Territorio

Plan Especial de Ordenación Urbana de la U.E A-0.1 «Sagastume» de Asteasu. (GHI-018/21-P08).

Con fecha 27 mayo de 2021, la titular del Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio dictó la Orden Foral cuyo contenido a continuación se publica:

«Previa su tramitación municipal, el Ayuntamiento de Asteasu presenta para su aprobación definitiva por esta Diputación Foral el expediente del Plan Especial de Ordenación Urbana de la U.E A-0.1 «Sagastume».

El expediente, promovido por la propiedad del ámbito, tiene por objeto desarrollar la nueva Unidad de Ejecución U.E A-0.1 «Sagastume» que se corresponde con la totalidad de la parcela actualmente ocupada por el Caserío Sagastume y tiene una superficie total de 761,98 m².

La actuación consiste en suprimir el edificio principal del caserío así como sus edificaciones anexas y su sustitución por un edificio aislado de baja densidad, de planta rectangular y un perfil de semisótano, planta baja y planta primera. La planta semisótano se destinará a uso de garaje y trastero disponiéndose ocho plazas de aparcamiento, mientras que las plantas baja y primera se destinarán a uso de vivienda con un máximo de cuatro unidades. Se establecen asimismo las separaciones con respecto a la carretera foral GI-2631 y Eliz Kalea lo que permite obtener una acera de 2,80 metros de anchura mínima.

Iniciada por el Ayuntamiento de Asteasu la tramitación del expediente con la solicitud al órgano ambiental de la práctica de la evaluación ambiental estratégica simplificada del plan, ésta concluyó con la emisión por la Dirección General de Medio Ambiente del informe ambiental estratégico de fecha 23 de junio de 2020 en el que se señaló que el plan no estaba sometido a evaluación ambiental estratégica ordinaria por no suponer efectos negativos significativos sobre el medio ambiente, siempre que se incorporaran al plan especial y a su documento ambiental las medidas de protección y corrección ambiental señaladas en el propio informe ambiental estratégico.

Una vez recibida en el Ayuntamiento de Asteasu la respuesta del órgano ambiental se procedió por Decreto de Alcaldía de 28 de septiembre de 2020 a la aprobación inicial con condiciones del documento de fecha septiembre 2020, sin que se presentaran alegaciones en el período de información pública.

Solicitado el informe preceptivo previsto en el Decreto Foral Normativo 1/2006, de 6 de junio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Norma Foral de Carreteras y Caminos de Gipuzkoa, la Dirección General de Planificación y Explotación emitió con fecha 2 de octubre de 2020 informe favorable con la condición de que se eliminaran los aparcamientos en línea previstos junto a la calzada de la carretera GI-2631.

Considerando el contenido de los informes emitidos en materia medioambiental, de carreteras y de servidumbres aereo-

duan dokumentu bat idatzi zen; eta behin-behineko onespina eman zitzaion, Asteasuko Udalaren 2021eko otsailaren 23ko osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez.

2021eko otsailaren 26an, espedientea Foru Aldundiko erreistroan sartu zen, eta behin betiko onesteko eskatu zen.

Dokumentuko proposamenean ukitzen dituzten foru departamentuen eskura jarri zen dokumentua; hala, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren 2021eko martxoaren 12ko txostenak, plan berezia ingurumen-txosten estrategikora egokitzekoak, adierazi zuen plan berezia egokitzen zitzaiola ingurumen-txosten estrategikoiari, eta sartuta zeuzkala ingurumen-txostenen ezarritako baldintzak.

Bestalde, Plangintza eta Ustiaketa Zuzendaritza Nagusiak, 2021eko martxoaren 26ko txostenean, adierazi zuen ezen, GI-2631 errepideko galtzadaren ondoan aparkalekuak egiteko aurreikuspenari buruz bere aurreko txostenean adierazitakoa zuzenduta zegoenez, ez zegoela eragozpenik plana behin betiko onesteko.

Hala ere, Lurralde Antolaketa Zuzendari Nagusiaren 2021eko apirilaren 8ko Ebazpenaren bidez, espediente Asteasuko Udalari itzultzea ebatzi zen. Horren helburua zen planaren memorian Udalak justifikatzea ezen, ordezkaturiko den baserriari dagozkion haztapan-koefizienteak eraikin berriari aplikatzearen ondorioz, eraikigarritasun-handitze haztaturik ez dela gertatuko.

2021eko apirilean beste dokumentu bat idatzi zen, zeinean justifikatzen baita, egin nahi den eraikinaren antzeko eraikinetan aplikatutako haztapan-koefizienteak aztertuta, proposatutako antolamenduak ez dakarrela hirigintza-eraikigarritasun haztatua handitzerik. Dokumentu hori onetsi egin zuen Asteasuko Udalak, 2021eko apirilaren 27ko osoko bilkuran, eta Foru Aldundira bidali zuen, behin betiko onesteko.

Foru Aldundiko Lurralde Plangintzako Zerbitzuko zerbitzu teknikoek dokumentuaren edukia aztertu dute, eta uste dute bat datorrela lortu nahi diren helburuekin eta legez zuzena dela. Beraz, bidezkoa da behin betiko onestea, eta baldintza bakarra da GI-2631 errepidearen ondoko aparkalekuen aipamena kentzea; izan ere, akats bat dela medio, mantendu egin da dokumentuaren memoriaren, 14. orrialdean.

Hori kontuan izanik, dagozkidan eskumenak erabiliz, eta aplikatzekoa den legeria ikusita, honako hau

XEDATZEN DUT

Behin betiko onestea Asteasuko «Sagastume» A-0.1 egikaritze-unitatearen hiri-antolamenduko plan berezia –eremuaren jabeak sustatua–, 2021eko apirileko dokumentuaren arabera eta foru agindu honen azalpen-zatian adierazitako akats zuzenketarekin.

Foru agindu hau behin betikoa da eta administrazio bidea amaitzen du. Nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez dezake interesdunak Euskal Autonomia Erdkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.»

I. eranskina: 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoak, 32 artikuluan ezarritako publikitate baldintzak betetzeko informazioa.

II. eranskina: Adierazitako dokumentuan dagoen Hirigintza Arautegiaren testua.

Donostia, 2021eko ekainaren 9a.—María Teresa Iribarren Goicochandia, idazkari teknikoa. (4091)

náuticas, se redactó un documento, de fecha diciembre 2020, que fue objeto de aprobación provisional mediante acuerdo adoptado en sesión plenaria del Ayuntamiento de Asteasu celebrada el 23 de febrero de 2021.

Con fecha 26 de febrero de 2021 se registró de entrada el expediente de referencia en esta Diputación Foral, solicitándose su aprobación definitiva.

El documento fue puesto a disposición de los departamentos forales afectados por sus propuestas de modo que la Dirección General de Medio Ambiente señaló en su informe de 12 de marzo de 2021, de adecuación del plan especial al Informe Ambiental Estratégico, que se han incorporado al mismo las condiciones establecidas en el citado informe ambiental.

Por su parte la Dirección General de Planificación y Explotación señaló en su informe de 26 de marzo de 2021 que, una vez subsanada la cuestión indicada en su anterior informe relativa a la previsión de aparcamientos junto a la calzada de la carretera GI-2631, no existía inconveniente para la aprobación definitiva del plan.

Sin embargo, mediante Resolución del Director General de Ordenación del Territorio de 8 de abril de 2021, se resolvió devolver el expediente al Ayuntamiento de Asteasu a efectos de que se ampliara en la memoria del plan la justificación de la inexistencia de un incremento de edificabilidad ponderada por la aplicación al nuevo edificio de los coeficientes de ponderación correspondientes al caserío objeto de sustitución.

Redactado un nuevo documento de fecha abril 2021 en el que mediante el análisis de los coeficientes de ponderación aplicados en edificios similares al que se pretende construir se justifica que la ordenación propuesta no conlleva un incremento de la edificabilidad urbanística ponderada, el Ayuntamiento de Asteasu procedió a su aprobación en sesión plenaria de 27 de abril de 2021 y a su remisión a efectos de su aprobación definitiva.

Analizado así el contenido del documento por los servicios técnicos del Servicio de Planificación Territorial de esta Diputación Foral, el mismo se estima acorde con los objetivos perseguidos y legalmente correcto, por lo cual resulta procedente su aprobación definitiva, sin más condición que la eliminación de la mención a los aparcamientos junto a la carretera GI-2631 que por error se mantiene en la página 14 de la Memoria del documento.

En su virtud, en el ejercicio de las facultades que me competen, vista la legislación de aplicación,

DISPONGO

Aprobar definitivamente el Plan Especial de Ordenación Urbana de la U.E A-0.1 «Sagastume» de Asteasu, promovido por la propiedad del ámbito, según documento de fecha abril de 2021 y con la corrección de errores señalada en la parte expositiva de esta orden foral.

Esta Orden Foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa, pudiendo interponerse contra la misma recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en Bilbao en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.»

Anexo I: Información para dar cumplimiento a los requisitos de publicidad establecidos en el artículo 32 de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental.

Anexo II: Texto de la Normativa Urbanística contenida en el citado documento.

San Sebastián, a 9 de junio de 2021.—La secretaria técnica, María Teresa Iribarren Goicochandia. (4091)

I. ERANSKINA

A) 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, Ingurumen-ebalazioari buruzkoak, 32. artikuluan a) paragrafoan xedatutakoari jarraituz, jakinarazten da onetsitako plana eskuragarri da goela helbide elektronikoa honetan:

<http://www.ast easu.eus>.

B) Dokumentu honi dagokion ingurumen-txosten estrategi-koa 2020ko uztailaren 6ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argi-taratu zen (126. zenbakian).

II ERANSKINA

C DOKUMENTUA - GARAPENEO HIRIGINTZA ARAUAK

*A-0 H.J.E. eremuko A-0.1 E.U. Egikaritze Unitatean apli-
katzeko xedapen orokorrak.*

A-0.1.1 artikulua. Plan Bereziaren esku-hartze eremua.

Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren esku-hartze eremua Asteasuko Plangintzako Arau Subsidiarioak Berrikusteko dokumentuaren A-0 H.J.E. Hirigintza Jarduerarako Eremuaren barnean zedarritzen den «Sagastume» izeneko A-0.1 E.U. Egikaritze Unitate berria izango da.

Unitatearen azalera osoa 761,98 m²-koa da.

*A-0.1.2. artikulua. Plan Berezia indarrean sartzea eta ha-
ren indarraldirako baldintzak.*

1. Hiri Antolamenduko Plan Berezi hau behin betikoz onar-tzen denean eta indarreko legerian argitalpenerako ezarritako betekizunak betetzen direnean sartuko da indarrean eta indar-raldia mantenduko du indargabetzen ez den bitartean.

2. Planeko zehaztapen bat edo ugari baliogabetu, bertan behera utzi edo aldatzeak ez du eraginik izango gainerakoen balioan, besteez lotura edo mendekotasuneko inguruabarrak direla medio horietakoren bat ezin aplikatzea gertatu ezean.

A-0.1.3. artikulua. Plan Bereziaren arau esparrua.

1. Plan Berezi honen arau esparrua osatzen dute Asteasu-ko Plangintzako Arau Subsidiarioen Berrikuspenean eta, zehaz-ki, A-0 H.J.E. Hirigintza Jarduerarako Eremuari dagokionez zehaztutako araubide juridiko eta hirigintza araubide orokorrak.

2. Halaber, aplikatzeak izango dira indarreko Arau Subsidiarioetako Hirigintza Arau Orokorrak bertako arauzko edukian ezarritako baldintzetan.

*A-0.1.4. artikulua. Plan Berezia eratzen duten dokumen-
tuak eta horien arauzko irismena.*

1. Hiri Antolamenduko Plan Berezia eratzen duten doku-mentuak.

Dokumentu hau dokumentu hauek osatzen dute:

- «A» Dokumentua. Memoria.
- «B» Dokumentua. Eranskinak.
- «C» Dokumentua. Garapeneko hirigintza arauak.
- «D» Dokumentua. Bideragarritasun ekonomiko eta finantza-
rioaren ikerketa.
- «E» Dokumentua. Planoak (I. Indarreko antolamendua - O. Proposatutako antolamendua).

2. Dokumentuen arauzko izaera.

Planaren arauzko edukia artikulua honetako 1. epigrafean adierazitako dokumentu guztiek zehaztuta geratzen bada ere, «C. Garapeneko Hirigintza Arauak» dokumentuak eta «E.O. Antola-
mendurako Planoak» atalean berariaz halakotzat zehaztutako planoak dira, zehazki, arauzko eta hirigintzako jardura erregula-

ANEXO I

A) De conformidad con lo dispuesto en el apartado a) del artículo 32 de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental, se comunica que la dirección electrónica desde la que se va a acceder al plan aprobado es la siguiente:

<http://www.ast easu.eus>.

B) El informe ambiental estratégico del presente docu-mento se publicó en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 126 de 6 de julio de 2020.

ANEXO II

DOCUMENTO C - NORMAS URBANÍSTICAS DE DESARROLLO

*Disposiciones de carácter general de aplicación en la
Unidad de Ejecución U.E. A-0.1 del área A.I.U. A-0.*

Artículo A-0.1.1. Ámbito de intervención del Plan Especial.

El ámbito de intervención del Plan Especial de Ordenación Urbana será la nueva Unidad de Ejecución U.E. A-0.1 «Sagastume» que se delimita dentro del Área de Intervención Urbanística A.I.U. A-0 del documento de la Revisión de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Asteasu.

La superficie total de la Unidad es de 761,98 m².

*Artículo A-0.1.2. Entrada en vigor y condiciones de vigen-
cia del presente Plan Especial.*

1. El presente Plan Especial de Ordenación Urbana entra-rá en vigor una vez aprobado definitivamente y cumplimentados los requisitos de publicación establecidos en la legislación vi-gente y mantendrá su vigencia en tanto no sea derogado.

2. La nulidad, anulación o modificación de una o varias de las determinaciones del Plan no afectará a la validez de las res-tantes, salvo en el supuesto de que alguna de ellas resulte in-aplicable por circunstancias de interrelación o dependencia de aquellas.

Artículo A-0.1.3. Marco normativo del Plan Especial.

1. Constituyen el marco normativo del presente Plan Espe-cial el régimen jurídico-urbanístico general definido en la Revi-sión de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Asteasu y de forma específica en lo que se refiere al Ámbito de Intervención Urbanística A.I.U. A-0.

2. Asimismo, serán de aplicación las Normas Urbanísticas Generales de las vigentes Normas Subsidiarias en los términos establecidos en su contenido normativo.

*Artículo A-0.1.4. Documentos constitutivos del Plan Espe-
cial y alcance normativo de los mismos.*

1. Documentos constitutivos del Plan Especial de Ordena-ción Urbana.

El presente documento está constituido por los siguientes documentos:

- Documento «A». Memoria.
- Documento «B». Anejos.
- Documento «C». Normas urbanísticas de desarrollo.
- Documento «D». Estudio de viabilidad económico-financiera.
- Documento «E». Planos (I. Ordenación vigente - O. Ordena-ción propuesta).

2. Carácter normativo de los documentos.

Si bien el contenido normativo del Plan queda definido por el conjunto de los documentos señalados en el epígrafe 1 del presente artículo, son los documentos «C. Normas Urbanísticas de Desarrollo» y los planos expresamente definidos como tales en el apartado «E.O. Planos de Ordenación» los que poseen, es-

tzeko izaera hori dutenak eta, horrenbestez, horietako zehaztapenekin bat etorri behar da nahitaez hau.

Garapeneko Hirigintza Arauei dagokienez, Plan Bereziak Egikaritze Unitatean zehazki aplikatzeko artikulua soilik jasotzen ditu eta, horrenbestez, Unitatean burutzen diren jardunen arazko izaera mantenduko dute. Halaber, aplikatzekoak izango dira Asteasuko Plangintzako Arau Subsidiarioen Berrikuspeneko Hirigintza Araudiko gainerako artikulua, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 2008ko urriaren 21eko saioan behin betikoz onartuak eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA aldizkarian 2009ko urtarrilaren 15ean argitaratuak.

Plan Berezi honetako gainerako dokumentuen izaera adierazi, erreferentzia edo justifikatzeko da funtsean. Beraz, horien edukian aurrez aipatutakoekin kontraesanik egongo balitz, aurreko haiek izango dira lehenestekoak.

3. Dokumentuen arteko desadostasunak.

Eskala ezberdinetara egindako arazko planoen artean hirigintza zehaztapan jakin batekiko desadostasuna egongo balitz, eskala handiagoan taxututako planoetan ezarritakoa lehenetsiko da, desadostasuna azken horien edukian akats material ageriko baten ondorio izan ezean.

4. Plan Bereziaren Laburpen Exekutiboa.

Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen Testu Bategina onartzeko urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuko 25.3. artikuluan xedatzen denaren arabera, Plan Bereziaren laburpen exekutibo bat jasotzen da, alderdi hauekin:

– Plan Bereziaren indarreko antolamendua aldatzen zaion eremuaren zedarripena eta aldaketaren irismena, P.1, P.2.1 eta P.2.2 planoak, dokumentu bereko I.1, I.2.1 eta I.2.2 planoekin alderatuz.

– Bertan behera uzteko eremuari dagokionez A-0.1 E.U. Egikaritze Unitatekoa izango da eta epea plangintza eta kudeaketako dokumentuak behin betikoz onartu artekoa.

A-0 H.J.E. eremuko A-1 E.U. Egikaritze Unitatean aplikatzeko Ordenantza partikularrak.

1. Egikaritze Unitatearen azalera.

A-0.1 E.U. Egikaritze Unitatearen azalera: 761,98 m².

2. Xehetasuneko kalifikazioa.

(DBEI) tipologiako bizitegi erako lurzati, lorategiko erako berezko lurzati librea duten dentsitate baxuko eraikin isolatuei dagokiena.

3. Lurzatiaren antolamendua.

* Baldintza geometrikoak:

Lurzatiaren itxiera 3,00 metroko distantziara bereizten da GI-2631 errepidearen kanpoaldeko ertzarekiko eta 7,80 metroko distantziara Sagastume-Berri eraikineko lorategiaren itxierarekiko Eliz-Kalea aldean.

Eraikin berria 10,00 metro bereiziko da GI-2631 errepidearen kanpoaldeko ertzarekiko eta gutxienez 3,00 metro Pantxone-Berri etxeko lurzatiaren itxierarekiko.

Eraikin berriaren profila erdisotoko solairuz, beheko solairuz eta goiko solairuz osatuko da. Erdisotoko solairuaren oinplanoko dimentsioari dagokionez 22,00 x 13,00 metrokoa izango da gehi Eliz-Kaletik solairura sartzeko balizko tunel estalia. Beheko solairuaren dimentsioak 22,00 x 10,00 metro izango dira. Lehendabiziko solairuan hegale ireki eta itxiak proiektatzeko aukera izango da eraikin berriaren, betiere, Unitateari esleitutako gehienezko bolumena eta Arau Subsidiarioen indarreko dokumentuan finkatutako gehienezko luzera eta irtengunea errespetatzen baldin badira.

pecíficamente, ese carácter normativo y de regulación de la intervención urbanística y, por tanto, ésta se deberá ajustar obligatoriamente a sus determinaciones.

En lo referente a las Normas Urbanísticas de Desarrollo, el Plan Especial incluye únicamente aquellos artículos de aplicación específica en la Unidad de Ejecución que mantendrán, por tanto, el carácter normativo en las actuaciones que se realicen en la Unidad. Serán también de aplicación el resto de los artículos de la Normativa Urbanística de la Revisión de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Asteasu, aprobadas definitivamente por el Consejo de Diputados de la Diputación Foral de Gipuzkoa en sesión de 21 de octubre de 2008 y publicadas en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa el 15 de enero de 2009.

El resto de los documentos del presente Plan Especial poseen un carácter fundamentalmente indicativo, referencial o justificativo, por lo que, en caso de contradicción en su contenido con los citados anteriormente, serán aquellos los que prevalezcan.

3. Discordancias entre documentos.

Si se advirtiese discordancia respecto a una determinación urbanística concreta entre planos de carácter normativo realizados a diferentes escalas, prevalecerá lo establecido en los planos redactados a una escala más amplia, salvo que la discrepancia responda a un error material manifiesto en el contenido de estos últimos.

4. Resumen Ejecutivo del Plan Especial.

En atención a lo que dispone el artículo 25.3 del Real Decreto Legislativo 7/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley del Suelo y Rehabilitación Urbana, el Plan Especial contiene un resumen ejecutivo con los siguientes extremos:

– La delimitación del ámbito en el que se altera la ordenación vigente y alcance de la alteración, planos P.1, P.2.1 y P.2.2, del Plan Especial en comparación de los planos I.1, I.2.1 e I.2.2 del mismo documento.

– En cuanto al ámbito objeto de suspensión será el de la Unidad de Ejecución U.E. A-0.1 y el plazo hasta la aprobación definitiva de los documentos de planeamiento y gestión.

Ordenanzas particulares de aplicación en la Unidad de Ejecución U.E. A-0.1 del área A.I.U. A-0.

1. Superficie de la unidad de ejecución.

Superficie Unidad de Ejecución U.E. A-0.1: 761,98 m².

2. Calificación pormenorizada.

Parcela residencial de tipología (EABD) que corresponde a edificios aislados de baja densidad que disponen de parcela libre propia de jardín.

3. Ordenación de la parcela.

* Condiciones geométricas:

El cierre de la parcela se separará una distancia de 3,00 metros respecto del borde exterior de la carretera GI-2631 y 7,80 metros del cierre del jardín del edificio Sagastume-Berri en el frente de Eliz-Kalea.

El nuevo edificio se separará 10,00 metros del borde exterior de la carretera GI-2631 y un mínimo de 3,00 metros respecto del cierre de la parcela de la casa Pantxone-Berri.

El perfil del nuevo edificio será de planta semisótano, planta baja y planta alta. La planta semisótano tendrá unas dimensiones en planta de 22,00 x 13,00 metros más el posible túnel cubierto de acceso a la planta desde Eliz-Kalea. La planta baja de 22,00 x 10,00 metros. En la planta primera, se podrán proyectar vuelos abiertos y cerrados en el nuevo edificio siempre que se respete el volumen máximo asignado a la Unidad y la longitud y saliente máximo fijado en el documento vigente de las Normas Subsidiarias.

* Lurzatiaren antolamenduaren ondoriozko azalerak:

– Unitatearen azalera osoa: 761,98 m².

– Lurzati pribatuaren azalera osoa: 633,45 m².

– Oinezko espaloietarako espazio libreerarako azalera: 128,53 m².

– Eraikinak erdisoto solairuan okupatutako azalera: 298,00 m².

– Eraikinak beheko solairuan okupatutako azalera: 220,00 m².

– Eraikinik gabeko lurzati pribatuaren azalera: 335.45 m².

3. Eraikuntzarako baldintzak.

* Lurzatiaren eraikigarritasuna:

– Hirigintza eraikigarritasuna: 763,00 m²(t). (1)

– Eraikigarritasun fisikoa: 763,00 m²(t). (1)

(1) Erdisoto solairuko azalera barne.

Araututako eraikigarritasunen xehetasuna Ordenantza Partikular honetako eraikigarritasun-erabileren Koadroan ezarrita gertatzen da:

* Eraikinen formaren erregulazioa:

– Baldintza orokorrak:

Osagarri modura, Plan Bereziko Ordenantza Partikularretan aurreikusi gabeko alderdiak arautuko dituzte Asteasuko Plangintzako Arau Subsidiarioak Berrikusteko dokumentuko Bizitegi Erako Eraikuntzako Ordenantzak izeneko IV.2. kapituluari, Ordenantza orokorrak izeneko IV.2.1 sekzioari eta Dentsitate baxuko eraikinetarako (DBE) Ordenantza partikularrak izeneko IV.2.4 sekzioari jasotzen diren zehaztapenek.

– Gehienezko eraikuntza-profila: SS + II.

– Eraikuntzaren gehienezko altuera: 6,00 metro, erdisotoko estalkitik neurtuta estalkiko teilatu-hegal horizontalaren hasieran.

– Estalkia: Bi uretakoa, gailur-lerroa fatxada luzeenaren paraleloan egonik.

Gehienezko malda: % 35.

4. Erabilera baldintzak.

* Baldintza orokorrak:

Eraikuntzaren erabilera eta jabari baldintza orokorrak bat etorriko dira Asteasuko Plangintzako Arau Subsidiarioak Berrikusteko dokumentuko 34-39 bitarteko artikuluetan (biak barne) partzeleki dagokienez ezarritako zehaztapenekin.

* Baldintza partikularrak:

– Gehienezko etxebizitza kopurua: 4 etxebizitzak.

– Sustapen araubidea: Sustapen libreko etxebizitzak.

– Gutxienezko aparkaleku plaza kopurua: 8 plaza.

5. Egikaritze baldintzak.

* Lurzatiak hartzen duen eraikuntza osoa «Eraikuntza Unitate» bat dela ulertzen da, udal baimena emateko oinarriko proiektu bakarra behar duelarik.

6. Jabariaren baldintzak.

– Jabari pribatuko lurzatiaren azalera: 633,45 m².

– Udalari lagatzeko jabari publikoko lurzatiaren azalera: 128,53 m².

* Superficies que resultan de la ordenación de la parcela:

– Superficie total de la Unidad: 761,98 m².

– Superficie total parcela privada: 633,45 m².

– Superficie destinada a espacios libres de aceras peatonales: 128,53 m².

– Superficie de ocupación en planta semisótano por el edificio: 298,00 m².

– Superficie de ocupación en planta baja por el edificio: 220,00 m².

– Superficie de parcela privada libre de edificación: 335.45 m².

3. Condiciones de edificación.

* Edificabilidad de parcela:

– Edificabilidad urbanística: 763,00 m²(t). (1)

– Edificabilidad física: 763,00 m²(t). (1)

(1) Incluida la superficie de la planta de semisótano.

La pormenorización de las edificabilidades reguladas queda establecida en el Cuadro de edificabilidades-usos de la presente Ordenanza Particular.

* Regulación de la forma de las construcciones:

– Condiciones generales:

Con carácter complementario, regularán los aspectos no previstos en las Ordenanzas Particulares del Plan Especial, las determinaciones contenidas en el Capítulo IV.2. Ordenanzas de Edificación en Suelo Residencia, Sección IV.2.1. Ordenanzas generales, y Sección IV.2.4. Ordenanzas particulares para los edificios de baja densidad (EABD), del documento de Revisión de las Normas subsidiarias de Planeamiento de Asteasu.

– Perfil de edificación máximo: SS + II.

– Altura máxima de la edificación: 6,00 metros medidos desde la cubierta del semisótano al arranque del alero horizontal de la cubierta.

– Cubierta: A dos aguas con la línea de cumbrera paralela a la fachada más larga.

Pendiente máxima: 35 %.

4. Condiciones de uso.

* Condiciones generales:

Las condiciones generales de uso y dominio de la edificación se ajustarán a las determinaciones generales establecidas para las parcelas en los artículos 34 al 39 ambos inclusive del documento de Revisión de las Normas subsidiarias de Planeamiento de Asteasu.

* Condiciones particulares:

– N.º máximo de viviendas: 4 viviendas.

– Régimen de promoción: Viviendas de promoción libre.

– N.º mínimo de plazas de aparcamiento: 8 plazas.

5. Condiciones de ejecución.

* El conjunto de la edificación que ocupa la parcela se considera como una «Unidad de Edificación», debiendo ser objeto de un único proyecto básico para la concesión de la licencia municipal.

6. Condiciones de dominio.

– Superficie de parcela de dominio privado: 633,45 m².

– Superficie de parcela de dominio público a ceder al Ayuntamiento 128,53 m².

7. Eraikigarritasun - erabileren koadroa.

7. Cuadro de edificabilidades - usos.

	Solairuak	Kopurua	Bizitegi erakoa	Garaje/trastelekua	Guztira
LURZATI mota (DBE)	Erdisotoa	1	-	298,00 m ² (t)	
	Guztira arrasa azpian		-	298,00 m ² (t)	298,00 m ² (t)
	Beheko solairua	1	220,00 m ² (t)	-	
	Goiko solairua	1	245,00 m ² (t)	-	
	Guztira arrasa gainean		465,00 m ² (t)		465,00 m ² (t)
	Eraikigarritasun fisikoa guztira		465,00 m ² (t)	298,00 m ² (t)	763,00 m ² (t)
	Hirigintza eraikigarritasuna guztira		465,00 m ² (t)	298,00 m ² (t)	763,00 m ² (t)

	Plantas	Número	Residencial	Garaje/trastero	Total
PARCELA Tipo (EABD)	Semisótano	1	-	298,00 m ² (t)	
	Total bajo rasante		-	298,00 m ² (t)	298,00 m ² (t)
	Planta baja	1	220,00 m ² (t)	-	
	Planta alta	1	245,00 m ² (t)	-	
	Total sobre rasante		465,00 m ² (t)		465,00 m ² (t)
	Total edificabilidad física		465,00 m ² (t)	298,00 m ² (t)	763,00 m ² (t)
	Total edificabilidad urbanística		465,00 m ² (t)	298,00 m ² (t)	763,00 m ² (t)

8. Ingurumen Txosten Estrategikoa.

Asteasuko «Sagastume» izeneko A-0.1 H.J.E. eremuari dago-kion Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren ingurumen-txosten es-trategikoko bigarren puntuan xedatutakoa betez, Plan Bereziko Hirigintza Arauetan Ingurumen Dokumentu Estrategikoko 12. (neurri prebentziozko, murriztaile eta zuzentzaileak) eta 13. (in-gurumen jarraipenerako aurreikusitako neurriak) kapituluetakoa edukia, nahiz ebazpenaren hurrengo ataletan jasotzen diren neurriak, derrigorrez betetzekoa direla eta hura garatzeko tres-netan (eraikuntza proiektua) kontuan izan beharko direla barne-ratzea eskatzen duena.

Horregatik, jarraian 12. eta 13. kapituluetakoa edukia trans-kribatzen da, Plan Bereziko Hirigintza Araudira gaineratuta gera dadin.

12. Neurri prebentziozko, murriztaile eta zuzentzaileak.

Atal honetan Plan Berezia onartu ondoren garatzen diren eraikuntza-proiektuetan aintzatetsi edo barneratu beharko di-ren neurrien zerrenda ematen da, aurreikusitako erabileretatik, obren fasea barne, eratorrita ingurumenean izan daitezkeen ba-lizko inpaktuak prebenitu, arindu edo zuzentze aldera.

Aipatu zerrenda eratzeko kontuan izan dira Dokumentu ho-netako dagokion kapituluak deskribatutako ingurumen eragin aurreikusgarriak eta Proinac sozietatean idatzitako eta Plan Be-reziko IV. eranskin modura gaineratzen den Inpaktu Akustikoa-ren lkerketan adierazten diren neurri zuzentzaileak.

Obren garapenean zehar aplikatzeko neurriak.

Neurri orokorrak.

- Zonako material eta zerbitzuekin hornitzea sustatuko da.
- Obretan zehar aurrezpen eta berrerabilpenari dagokienez ahalik eta eraginkortasun handiena lortzeko neurri egokiak ja-soko dira.

– Obrak proiektua egiteko ezinbestekoa den gutxieneko ere-muaren barnean egikaritzen direla kontrolatuko da.

8. Informe Ambiental Estratégico.

En cumplimiento de lo dispuesto en el Punto Segundo del In-forme ambiental estratégico del Plan Especial de Ordenación Ur-bana relativo al A.I.U. A-0.1 «Sagastune» de Asteasu, que exige in-cluir en las Normas Urbanísticas del Plan Especial que el conteni-do de los capítulos 12 –medidas de prevención, reducción y cor-rección– y 13 –medidas previstas para el seguimiento ambien-tal– del Documento Ambiental Estratégico, así como las medidas incluidas en los siguientes apartados de la resolución, son de obligado cumplimiento y deberán tenerse en cuenta en los instru-mentos de desarrollo del mismo - proyecto de edificación.

Por ello, se transcribe a continuación el contenido de los ca-pítulos 12 y 13 para que quede incorporado a las Normas Urba-nísticas del Plan Especial.

12. Medidas de prevención, reducción y corrección.

En el presente apartado se listan las medidas que se debe-rán considerar o incluir en los proyectos de edificación que se desarrollen tras la aprobación del Plan Especial para prevenir, mitigar o corregir los potenciales impactos ambientales deriva-dos de los usos previstos, incluyendo la fase de obras.

Para su elaboración se han tenido en cuenta los efectos am-bientales visibles descritos en el capítulo correspondiente del presente Documento y las medidas correctoras señaladas en el Estudio de Impacto Acústico redactado por Proinac y que se incluye como anexo IV en el Plan Especial.

Medidas a aplicar durante las obras.

Medidas de carácter general.

- Se incentivará proveerse de materiales y servicios de la zona.
- Se contemplarán las medidas que resulten adecuadas para la consecución de la máxima efectividad posible en mate-ria de ahorro y reutilización durante las obras.
- Se controlará que la ejecución de las obras se efectúe dentro del área mínima indispensable para la realización del proyecto.

– Eremu ezberdinak (pilaketarako zonak, hondakinak gordetzea, etab.) errotuluak ipinita identifikatuko dira eta, egokitzat jotzen denean, zedarrituta egongo dira.

– Obretako proiektuetan eranskin espezifiko bat gaineratu da. Bertan jardun onen eskuliburu bat garatuko da, GI-2631 errepidearen gaineko eragin kaltegarriak ahalik eta gehien gutxitu eta lasaitasun publikoaren alde egiteko obrako fasean zehar: lanaldiak, makineria, behin-behineko desbideratzeak, kamioi eta bideen garbiketa, hauts eta lokatzen sorrerarekin lotutako mugak, etab.

– Behin obrak amaituta, obrako instalazioak desegin egingo dira eta eragindako eremua garbitu, sortutako hondakinak kudeatzailer edo zabortegi baimenduetara eramanez Hondakinak Kudeatzeko Planean xedatutakoari jarraiki.

– Indusketetan kutsatutako zoruen zantzuak hautematen baldin badira lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritakoaren arabera jardungo da.

– Obrak egiten diren bitartean kutsu arkeologikoko aurkikuntzaren bat egiten baldin bada, zona horretan lanak bertan behera utziko dira zuzentze eta, arloan indarrean diren legeko xedapenen arabera egokitzat jotzen diren neurriak hartuko dira eta horri dagokionez eskumena duen agintaritzari berri emango zaio.

Habitat naturalei eta baso faunari eraginak ekiditeko neurriak.

– Obrako laguntza instalazioak (metaketa-eremua, hondakinen biltegiatzea, makineriaren parkea, garbiketarako gailuak, etab.) ingurumenari dagokionez urritasun gehieneko inguruko espazioetan kokatuko dira eta dagoeneko narriatuta dauden espazioak lehenetsiko dira.

– Hori posible ez baldin bada, eragindako azalera ezinbestekoa den gutxienezko izango da eta berrezarri egingo da behin haren okupazioa amaituztat ematen denean.

– Eremuan dauden espezie autoktonoen baso masetan eragina ez da, inolaz ere, justifikatuta geratuko.

– Obrako mugak behar bezala identifikatuta egongo dira eta muga horiek ez direla gairiditzen kontrolatuko da.

– Inguruko landaredia haren arnasketa saihestu edo zailtzen duen hauts edo hormigoi arrastorik gabe egotea zainduko da. Beharrezkoa baldin bada, ureztatze kontrolatuak aplikatuko dira.

Emisioak kontrolatzeko neurriak.

1. Hautsa kontrolatzeko neurriak.

– Gainazalen gaineko ureztatze kontrolatuen sistema egongo da (jariatze-urak ekidite aldera), hura denboraldi lehorreko baldintzetan erabiltzea bermatuz obra-eremuan hautsa harrotzea ekiditeko, bereziki joan-etorrietarako biluziak diren zonetan.

– Beharrezkotzat jotzen den zonetan eta gutxienez obra-eremuaren irteeran, ibilgailuak eta makineria garbitzeko gailuak paratuko dira, gurpilak garbitzeko plataformak barne, lokatza edo hautsa garraiatzea saihesteko.

– Material haustuak garraiatzen dituzten kamioiak olanekin edo partikulak barreiatzea ekiditeko beste edozein gailurekin estali beharko dira.

– Metaketa-eremuak olanekin, plastikoen edo partikulak barreiatzea ekiditeko bestelako gailuekin estaliko dira.

2. Zarata eta gasak kontrolatzeko neurriak.

– Posible den bakoitzean, zarata maila handiak sortzen dituzten lanak aldi berean egitea saihestuko da.

– Egoki prestatutako makineria eta ibilgailuen kontrola egingo da gas eta zarataren emisioak murriztu eta, modu horretan,

– Las diferentes áreas (zonas de acopio, almacenamiento de residuos, etc.) serán identificadas mediante la disposición de letreros y, en los casos que resulte pertinente, estarán delimitadas.

– Los proyectos de obras incluirán un anejo específico en el que se desarrolle un manual de buenas prácticas de cara a minimizar las afecciones negativas sobre la carretera GI-2631 y el sosiego público en la fase de obras: periodos de trabajo, maquinaria, desvíos provisionales, limpieza de camiones y de viarios, limitación de generación de polvo y barro, etc.

– Una vez finalizadas las obras, se procederá al total desmantelamiento de las instalaciones de obra y a la limpieza del área afectada, trasladando los residuos generados a gestor o a vertedero autorizados en cumplimiento de lo dispuesto en el Plan de Gestión de Residuos.

– En caso de que durante las excavaciones se detecten indicios de suelos contaminados se procederá según lo establecido en la Ley 4/2015, de 25 de junio, para la prevención y corrección de la contaminación del suelo.

– Si en el transcurso de las obras se produjera algún hallazgo que suponga un indicio de carácter arqueológico, se suspenderán preventivamente los trabajos en la zona y se adoptarán las medidas que, de conformidad con las disposiciones legales vigentes en la materia se estimen oportunas y se dará cuenta del mismo a la autoridad competente a ese respecto.

Medidas para evitar impactos a los hábitats naturales y a la fauna silvestre.

– Las instalaciones auxiliares de la obra (zona de acopios, almacenamiento de residuos, parque de maquinaria, dispositivos de limpieza, etc.) se ubicarán en los espacios de menor ambiental presentes en el entorno y preferentemente en espacios ya degradados.

– De no resultar esto posible, las superficies afectadas serán las mínimas imprescindibles y serán restauradas una vez se haya dado por finalizada su ocupación.

– En ningún caso queda justificada la afección a las masas boscosas de especies autóctonas presentes en el área.

– Los límites de la obra estarán perfectamente identificados y se controlará que no se exceden.

– Se velará por que la vegetación del entorno esté libre de polvo o restos de hormigón que impida o dificulte su respiración. De ser necesario se aplicarán riegos controlados.

Medidas para el control de emisiones.

1. Medidas para el control de polvo.

– Se contará con un sistema de riegos controlados (a fin de evitar aguas de escorrentía) sobre las superficies, garantizándose su empleo en condiciones de tiempo seco para evitar la emisión de polvo en la zona de obras, en especial en zonas transitoriamente desnudas.

– En las zonas en las que se considere necesario y al menos a la salida de la zona de obras, se dispondrá de dispositivos de limpieza de los vehículos y de la maquinaria, incluyendo plataformas de lavado de las ruedas para evitar el transporte de barro o polvo.

– Los camiones que transporten materiales pulverulentos deberán ser cubiertos con lonas o con cualquier otro tipo de dispositivo que evite la dispersión de partículas.

– Se cubrirán las zonas de acopio con lonas, plásticos u otro dispositivo que evite la dispersión de partículas.

2. Medidas para el control de ruido y gases.

– Se evitará, siempre que sea factible, desarrollar de forma simultánea trabajos que generen elevados niveles de ruido.

– Se realizará un control de la maquinaria y de los vehículos con una adecuada puesta a punto para reducir la emisión de

olio edota balazta-likidoaren ihesak ekiditeko. Halaber, emisio akustikoei eta atmosferako agenteei dagozkien arauzko ikuska-penak burutuko dira.

– Obran erabiltzeko makineriak CE marka izan beharko du.

Suspentsioan diren solidoak herrestan eramatea kontrolatzeko neurriak.

– Lan-eremua, ibilgailuak eta makineria garbitasun-baldintza egokitan mantenduko dira.

– Zaku eta edukiontzia erabiliko dira produktu eta hondakinak gordetzeko, hiri barruko bidean uztea ekidinez.

– Euri urak herrestan eraman ditzakeen materialen pilaketak olana edo antzeko gailuekin estaliko dira.

– Materialen zamalanak egitean ahalik eta hauts gutxien harrotzeko neurriak hartuko dira.

Isuriak kontrolatzeko neurriak.

– Obren proiektuetan hiri hondakin uretara asimilagarriak diren isuri guztiak biltzea bermatuko da, kolektore orokorretako sarera gaineratuz, eskualdeko araztegiak trata daitezten.

Ingurumen istripuak prebenitu, jasan eta konpontzeko neurriak.

– Larrialdien aurrean jarduteko protokoloak taxutuko dira.

– Hondakinak pilatzeko eremuak su-itzalgailuz hornituta egongo dira eta pizte- edota bero-iturriak ekidindo dira, suteak eragitea saiheste aldera.

